



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2017ko irailaren 18tik 22rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: FEDen BILERA

Estimazioak

	2017		2018		2019		2020	Largo Plazo	
PIB	2,2%	2,4%	2,1%		1,9%	2,0%	1,8%	1,8%	
Tasa Paro	4,3%		4,2%	4,1%	4,2%	4,1%	4,2%	4,6%	
PCE	1,6%		2,0%	1,9%	2,0%		2,0%	2,0%	
PCE Core	1,7%	1,5%	2,0%	1,9%	2,0%		2,0%		


Datuaren analisisia

d-ek gorantz berrikusi zuen hazkundearen estimazioa 2017an, +% 2,4raino (% 2,2 aurrekoa), eta 18koa aldaketarik gabe utzi zuen (+% 2,1). Inflazio aukerak beherantz berrikusi ziren, 2017rako ntsumoaren deflazioa +% 1,6an mantentzen bada ere, urte amaierarako azpiko tasaren rreikuspena +% 1,7tik +% 1,5era jaitsi baita. 2018rako PCEaren estimazioa hamarren bat herantz berrikusi zen, % 1,9raino 2018rako, epe luzean +% 2,0ko estimazioari eutsita. lantzearen murrizketari dagokionez, urrian hasiko dela jakinarazi zuen, hilean 10 bilioiko itmoan. Azkenik, tasetan ez zen aldaketarik egon, eta % 1-% 1,25ean mantendu ziren, baina enduan igoera bat gerta daitekeela aipatu zen.

Adierazlearen azalpena

ederal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-oliticako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren gonkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko rakunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren itartez, enplegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa arne) eta epe luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

EUROPA: ZEW ALEMANIA




Datuaren analisia

ew adierazlea argitaratu zen eta aurreikuspen guztiak gainditu zituen. Gaur egungo egoeraren ertzepzioa neurtzen duen osagaiak aurreko 86,7tik 87.9ra igo zen, esperotakoa 86,2 zenean. ukeren osagaiak ere hobekuntza nabarmena izan zuen, 17ra iritsi baitzen irailan, espero ziren 12 untuak baino datu hobea, abuztuan 10eraino erori ondoren.

Adierazlearen azalpena

lemaniko Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko goeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen “sentimendu ekonomiko” islatzeko balio u. Hilero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta aten datuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hileetako aurreikuspenei uruz galdetzen zaie adituei.

EUROPA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMIa



Datuaren analisia

uroguneko PMIaren datuak nabarmen hobetu ziren, eta manufakturen indizea 57,4tik 58,2ra igo zen, aurreikusitakoa 57,2 izan bazen ere. Zerbitzuen indizea ere 54,7tik 55,6ra igo zen, aurreikuspenak 54,8koak ziren bitartean. Gauzak horrela, adierazle konposatua 56,7ra igo zen (5,7 aurrekoa eta 55,6 aurreikusitakoa), maximo historikoetatik hurbil. Herrialdeei begiratuta, hala Frantziak nola Alemaniak datuak hobetu zituzten zerbitzuen zein manufakturen PMIan, eta horien indize konposatuak 57,2tik 57,8ra igo ziren hurrenez hurren.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako erabakitzaileei manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Manufaktura-sektorearen/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio bat da. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik 50etik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikuspena
25/09	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
25/09	Espainia	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	--
25/09	Alemania	IFO enpresen egoera	116.0
25/09	Alemania	IFO aukerak	108.0
25/09	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	124.7
25/09	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	-0.25
25/09	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	11.5
26/09	Frantzia	Enpresen konfiantza	110
26/09	Estatu Batuak	Etxebizitza berrien salmenta	588k
26/09	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	120.0
26/09	Estatu Batuak	Richmond manufaktura indizea	13
27/09	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	103
27/09	Eurogunea	M3 YoY diru-eskaintza	% 4.7
27/09	Italia	Sentimendu ekonomikoa	--
27/09	Italia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	110.6
27/09	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 1.0
27/09	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak	-% 0.5
27/09	Estatu Batuak	AEB Petrolio gordinaren inbentarioak DOE	--
28/09	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	11.0
28/09	Espainia	Urte arteko xehekako salmentak	--
28/09	Espainia	Hileko KPIa	--
28/09	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	112.0
28/09	Eurogunea	Enpresa-arloko klima	1.12
28/09	Eurogunea	Konfiantza industrialak	5.1
28/09	Eurogunea	Zerbitzuen konfiantza	15.0
28/09	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-1.2
28/09	Alemania	Hileko KPIa	% 0.1
28/09	Estatu Batuak	Hiruhileko BPGd urtekotua	% 3.1
28/09	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	270k
28/09	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0.4
28/09	Estatu Batuak	MoM xehekako inbentarioak	--
29/09	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-11
29/09	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.6
29/09	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	% 1.8
29/09	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	51.5
29/09	Alemania	Hileko xehekako salmentak	% 0.5
29/09	Frantzia	Hileko KPIa	-% 0.2
29/09	Espainia	Kontu korrontearen balantza	--
29/09	Erresuma Batua	Hiruhileko BPGd	% 0.3
29/09	Eurogunea	Urte arteko KPIaren kalkulua	% 1.6
29/09	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	% 1.2
29/09	Estatu Batuak	Diru-sarrera pertsonalak	% 0.2
29/09	Estatu Batuak	Gastu pertsonala	% 0.1
29/09	Estatu Batuak	PCE deflektorea MoM	% 0.3
29/09	Estatu Batuak	Chicagoko manufaktura indizea	58.7
29/09	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	95.3
29/09	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
29/09	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--

ASTE HONETAN MERKATUETAN

URTSAK:

Clara positiboak burtsa nagusietan, hala Europan nola EBetan. Indizeak Fed-en bileraren zain egon ziren, asteko artakari nagusia baitzen hori. Asteazkenean amaitu zen, eta bere balantzearen murrizketa urrian hasiko dela iragarri zen. Tasetan, berriz, ez zen aldaketarik egon, baina onduan beste igoera bat gerta daiteke. Arlo geopolitikoan, Ipar Korearen eta AEBen arteko tentsioa areagotu egin zen, lehenbizi NBERen bileraren hasieran, baina Ipar Korea suntsitzeko mehatxua egin zuenean, eta ondoren, Kim Jong Unek erantzun zionean eta azafikoan saio nuklear gehiago egiteko mehatxua egin zenean. Tentsioaren gorakada honek eragina izan zuen merkatuetan, batez ere astearen amaieran, eta bertsioegileak babes bila hasi ziren.

Beste kasuan, Japonian eman zen mugimendurik aurreratuena, eta Nikkeiak aurrerapauso handi bat egin zuen, herrialdean hauteskunde aurreratuak dei daitezkeela ezagutu ondoren. Japoniako Bankuak ere erabakia egin zuen, baina bere diru-politikan aldaketarik ez gitea erabaki zuen, eta ez zuen eraginik izan merkatuetan. Horaz, orokorrean, oro har, astea laua izan zen.

RRENTA FINKOIA:

Europan, mugimendurik handiena zor portugezaren errentagarritasunean eman zen, nabarmen murriztu baitzen &Pren ratingaren hobekuntzaren ondoren. Alemaniako eta Espainiako errentagarritasunak apur bat hobetu ziren, % 45 eta % 1,63raino 10 urterako epean, arrisku-priman 180p-etan egonkor mantendu zen bitartean. AEBetan, EDen bilerak eta abenduan taseen igoera ia ziurraren aieztapenak ondorioak izan zituen bonuetan, eta errentagarritasunak europarrenak baino gehiago hazi ziren.) urterako tasa % 2,25ean kokatu zen. Kredituak, bestalde, okerrera egin zuen eta diferentzialak handitu zuten.

IBISAK/LEHENGAIK:

Beste alarrak igoera handia izan zuen Fed-en bileraren ondoren. Hala ere, gertatu zen Yenarekin, tentsio geopolitikoak areagotzearen ondorioz. Hala ere, bi mugimenduak urtzen ari ziren, eta astea bukatzerako, euroak indarra irabazi zuen gainerako dibisen aldean. Petrolioaren prezioak murreratu egin zuen aste honetan, LPEEek ostiralean izango zuten bileran ekoizpenean murrizketak egiteko gomendio gehiago iragarri zitezkeelakoan. Baina, azkenean, ez zen aldaketarik gertatu. Bestalde, aste amaieran urreak balioa gertatu bazuen ere, tentsio geopolitikoaren ondorioz babes-estiboa izan zelako, itxieran galerak izan zituen.



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.